

Zenbat buru...

Legedi berria
Hegoaldean >

Tokiko telebistena arautu gabeko esparrua izan da orain arte Hego Euskal Herrian. Araudi falta baliatuta, tokiko telebista ugari sortu da bazterretan. Orain, itzalaldi analogikoa hurreratzen ari denez (2012rako telebista guztiek teknologia digitala baliatu beharko dute), aldaketak burutu gura ditu Espainiako Gobernuak: tokiko lurreko telebista digitalaren Plan Tekniko Nazionala, berbarako, onartuta eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuta dago. Plan horrek telebistentzako barruti jakin batzuk ezartzen dizkio autonomi erkidego bakoitzari. Barruti bakoitzean 4 tokiko telebista egon ahal izango dira gehien jota (bat publikoa eta besteak pribatuak). EAerako 13 barruti izendatu dituzte; Nafarroarako, berriz, 5.

Udalek uztailaren 8ra arteko epea izan dute euren eskaerak egiteko. Orain, Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari dagokie telebista pribatuek zuzenean kudeatuko dituzten gainerako kateak esleitzeko lehiaketaren oinarri teknikoak lantzea. Urte

TOPAGUNEA TOKIKO TELEBISTEN
LEGEDI BERRIAREN AURREAN

Interes handiz ari gara jarraitzen EAE eta Nafarroako tokiko lurreko telebista digitalen panorama arautuko duen prozesua. Uneotan Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari dagokie telebista publiko zein pribatuek zuzenean kudeatuko dituzten kateak esleitzeko lehiaketarako oinarriak ezartzea. Hori dela-eta, Topagunea lantzen ari den behin behineko planteamenduaren arabera, puntu hauek funtsezkoak izan behar lirarteke oinarriok ezartzerakoan:

- EAerako zein Nafarroarako izendatutako barruti bakoitzean euskara hutsezko telebista bermatzea. Horrez gain, barruti bakoitzean banatu beharreko lizentziak eskualdeko egoera soziolinguistikoaren arabera definitzea, beti ere euskararen normalizazioan eragiteko asmoz.

- ETB1en eta euskaraz diharduten tokikoen artean elkarlanerako aukerak aztertzea.

- Zuntz optiko bidez euskarazko telebisten seinalea zabaldu eta euskarazko kalitatezko telebistak bultzatu eta lehenestea.

- Eskualde bakoitzean sustraituriko eragileek abantaila izatea esleipen-prozesuan, oinarriko baloreak (aniztasuna, euskalduntasuna, bideragarritasuna...) garatzeko ardura izango duten heinean.

- Euskara hutsez dihardutenei diru-laguntzak ematea digitalizazioak dakarren zama arintzeko.



Euskara hutsezko tokiko telebistak eratzen ari diren elkarguneari dagokionean, azkenik, Topaguneak oro har bat egiten du euren helburuekin eta haiekin elkarlanean aritzeko gogoia agertu nahi du.

Egin kontu, irakurle, momentu hau erabakigarria dela: hurrengo urteotako Hegoaldeko tokiko telebisten panorama (eta bertan euskarak izango duen presentzia)

BAGERA, IRUTXULO ETA GAZTETXULOREN EGOITZA BERRIA

Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkarteak, Irutxulo Donostiako astekariak eta Gaztetzulo Euskal Herriko gazteen hilabetekariak egoitza berria daukate. Aurrerantzean Puioko Katalina Eleizegi kaleko 36. zenbakiko behealdean izango gara. Egoitza Udalarena da, eta bi urterako utzi du Bagera elkartearen esku, sinatutako hitzarmenean epe hori luzatzeko aukera aurreikusi den arren.

Katalina Eleizegi kaleko 36. zenbakiko egoitza orain artekoa baino dezente handiagoa da eta, azpiegitura aldetik ere, askoz egokiagoa. Bagera-ri dagokionez, orain artean ez bezala, Mintzalaguna ekimenean parte hartzen duten euskaldun zaharrek nahiz euskaldun berriek elkartzeko txokoa izango dute.

Inaugurazio jendetsua

Ekainaren 10ean Bageraren urteko batzarra izan zen, eta bertaratutako bagerakideek egoitza ezagutzeko aukera izan zuten. Ondoren, ekainaren 29an jendaurreko inaugurazioa egin genuen. Ekitaldian 50 bat lagun bildu ziren eta egoitza bisitatu ostean,



Euskalgintzako eragile asko bildu zen ekitaldira. ARGAZKIA: Irutxulo.

pintxo batzuk dastatzeko aukera izan zuten bertaratutakoek. Inaugurazioan izan ziren, besteak beste, Ramon Etxezarreta Kultura eta Euskara zinegotzia, Enrique Ramos Herriarren Partaidetza zinegotzia, Joxe Mari Muxika Topaguneko lehendakaria, Joan Mari Larrarte EKTko Administrazio Kontseiluko idazkaria, Martxelo Otamendi Berriako zuzendaria, Kike Amonarriz Argiako sustapen arduraduna eta Josetxo Ibazeta Baga Boga plataformako kidea.

Bagera eta Irutxulo, sorreratik, erromesaldian ibilidira, egoitza finkorik gabe, eta hau arazo larria izan

GAZTE SAILA MUGEZ GAINDI!

Uztailaren 2, 3 eta 4an, Topaguneko Gazte Sailetik 91 lagun abiatu dira Zuberoara, Ozaze-Mendikotan ospatu den Euskal Herria Zuzenean jaialdian laguntzaile lanak egitera. Bertan lana, gogotik egin duten arren, elkar ezagutu eta girotzeko aukera ere izan dute. Egoaldiaren balorazioa ona izan da oro har eta 2005eko EHZ jaialdiko parte-hartzea ere ziurtatu da dagoeneko.

Bestalde, uztailaren 15tik 18ra bitartean Okzitaniako Beziers herrian burutuko den hizkuntza gutxituen jaialdian parte hartzeko gonbidapenari baietza eman dio Gazte Sailak. Bertan Europako hainbat herrialdetako gazte talde desberdinak bilduko dira (katalanak,



Topaguneko lagunak EHZren aurtengo ekitaldian bretoiak, okzitaniarrak..). Jaialdi honen helburuak honako hauek dira: lurralde desberdinetan hizkuntza eta kultura gutxituen aldeko jarduerak lantzen dituzten gazte taldeen arteko elkar ezagutza bultzatzea, esperientziak trukatzeko eta, posible den heinean, mugez gaindiko proiektuak abian jartzea. Jaialdi

2004an (ere) Kultur Errotak 150

2003an Topaguneko kideek Errotaren bitartez antolaturiko emanaldiak 150 izan ziren; 2004an ere 150 eskaini ahal izango dituzte, nahiz eta haien asmoek dezente gehiagorako eman. Goia jo ote du Kultur Errotak? Euskaraz sorturiko ikuskizunak eskaini eta gozatzeko gogoak bide egokia aurkitu du zirkuituan, eta horren erakusgarri da izaniko garapena. Ekarpen publiko handiagoak Errota gehiago garatzeko aukera emango luke. 2004an, 2002 eta 2003ko diru-laguntza berberekin, 150 ema-



Zenbait eragilerekin harremanetan

Federazioaren egitasmoen inguruko informazioa eman eta honen kezka adierazi nahian, hainbat eragile politiko eta sindikalekin jarri da harremanetan Topagunea azken asteotan.

Horrela, ekainaz geroztik federazioko ordezkariak bilera batzuk egin dituzte zenbait taldeekin. Berri hau idatzi den momentura arte EAJ, EA, PSE-EE, ELA eta Ezker Batuko ordezkariekin egin izan dira bilerok. Hurrengo egun eta asteetarako zehaztuta edo zehazteko daude Sozialista Abertzaleak, Aralar, Alderdi Popularra (PP) eta LABekin bilerak, eta beste eragile batzuekin elkartzeko interesa ere badago (politika eta sindikalgintza arloetakoak nagusiki).

Federazioa aurkezteaz batera, martxan dauden egitasmo nagusien berri eman zaie eragilei; horrez gain, EBNP betetzeko dauden diru baliabideen inguruko kezka agertzea eta hizkuntza politikaren inguruan bakoitzak dauzkan iritzi eta ikuspuntuak elkartrukatzea ere badi-
ra bilera hauen beste helburuetako batzuk.

Mendebaldeko euskalkiaren mintegia

Ekainaren 11 eta 18an mendebaldeko euskalkiari buruzko mintegia egin zen Abadiñoako kultur etxean. Topaguneko teknikariek gain, 8 elkartetako 13 lagun bildu ziren bertan, denek ere kezka nagusi bat zeukatela: zelan urratu euskalkiaren bidea modu horretan tokikotasuna azpimarratu eta herritarrengana gehiago hurreratzeko? Anbotoko Xabier Amurizak bustidura eta enparauez ahaztu eta euskalkiaren bizkar-hezurrari (aditza, deklinabidea, joskera, lexikoa, esamoldeak) heltzea proposatu zuen, gainerako arau txiki eta funtzionaltan batuaren bidea jarraitzea aholkatuta. Mendebaldeko euskalkian hiru azpisistema (-ea, -ia eta -ie) identifikatu zituen berak; lehenengo biek tradizio idatzi handia daukate. Horregatik, Amurizaren iritziz euren gainean eraiki beharko liriateke leku bakoitzerako ereduak. Gaiari buruz gogoeta egitekotan geratu

Bazkide berriak Federazioan

Martxoan 2004ko Batzar Nagusia egin zenetik beste hiru bazkide onartu ditu Topaguneko Zuzendaritza Batzordeak behin-behinekoz, elkarteek eginiko eskaerei jarraiki. Hiru elkarteotako bi nafarrak dira eta hirugarrena Gipuzkoako Goierri eskualdekoa.

Idiazabalgo Illati elkarte da lehenengoa. Iazko urtean Goierriko herri horretako zenbait euskaltzaleren hausnarketari esker sortutako euskara elkarte da hau. Gaur egun, Aldaize bihilabetekaria argitaratzeari heldu diote lehentasunez.

Bestetik Araitz-Betelu, Larraun eta Lekunberriko Mailope elkarte dugu. Izen bereko hila-
betekaria argitaratzen duen elkarteak Nafarroako mendialdeko ordezkariak handitu egingo du euskara elkartearen federazioan.

Federaziora hurbildutako hirugarren elkarte Iruñeako Karrikiri elkarte da. Iruñerriko elkartearen artean erreferentzia da, urteetan arlo ezberdinetan egin duen eta egiten dihar-

GAZTE SORTZAILE SARIAK EUSKAL HERRIKO I. GRAFFITI LEHIAKETA

Gazteak izatez sortzaileak dira. Baina gazteek kultur jarduerak sortzeko eta bultzatzeko daukaten baliabide eskasia dela eta asteburuetan.com gazte programaren barmean Topaguneko Gazte Sailak, gazteen kultur jarduerak sustatzeko sariketa jarri du martxan.

Gazte Sortzaile Sariak lehiaketaren helburua ondoko puntuetan laburbiltzen da:

- Gazteen berezko izaera sortzailea eta ekoizpen artistikoa sustatzea
- Gazteen ekoizpen artistikoak gizarteratzea.

Helburu honekin, eta egungo gazteen gustu eta

joerei jarraituz, Euskal Herriko I.

graffiti lehiaketa jarri dugu martxan:

15 urtetik gorako Euskal Herriko

gazte euskaldunak izango dira parte-hartzaileak

Bakarkako nahiz taldekako parte-hartzea onartzen da. Taldeak gehienez hiru kide izango ditu.

Teknika librea izango da.

Graffitiaren gaia Euskara izango da.

Graffitiaren marrazki-zirriborroa uztailearen 30etik irailaren

25era bitarteko epean aurkeztu beharko da Topagunean.

Gerta daiteke marrazkia lehiaketatik kanpo gelditzea edo horma zati bat esleitzea. Horma zatia esleitu zaien marrazkiak izango dira elkarren artean lehiatuko direnak.

Hamar horma zati esleituko dira, 6m x 2m neurrikoak, eta lehiaketaren azken fasea urriaren 2an burutuko da Mendaron, goizeko 10:00etatik aurrera antolatutako den jaialdi batean.

1.200 €-ko lau sari banatuko dira.

Jaialdian, besteak beste, ondoko



ikuskizun eta tailerrak egongo dira: graffiti erakusketa, DJ tailerra, break dance tailerra eta erakusketa, perkusio tailerra eta kontzertua, funky eta rap kontzertuak...

Dudarik gabe, aukera ezberdin eta erakargarri bat aurkezten digu

Datozenak...

Kontuan har itzazue hitzordu hauek zuen agenda osatzerakoan:

- Uztailak 15-18: Europako hizkuntza eta kultura gutxituen jaialdia Béziers-en (Okzitania). Topagunea bertan izango da, Youth of European Nationalities (YEN) elkarteak gonbidatuta.

- Uztailak 20: Kultur Errotari buruzko jendaurreko agerraldia Bilbon (11.00etan Euskaltzaindiaren egoitzan): orain arteko ekitaldien balorazioa eta urtea amaitu artean izango direnen aurkezpena.

- Graffiti lehiaketa (Gazte Sortzaile Sariak): graffiti-zirriborroak aurkezteko epea uztailearen 30etik irailaren 25era.

- Urriak 2: Gazte Sortzaile Sariak jaialdia Mendaron. Graffiti lehiaketaren finala.

Σ

Gogoan izan, bestalde, abuztuan zehar Topagunearen bulegoak itxita egongo direla oporrak direla-eta. Izan ere, gainean daukagu jada udako etenaldia, eta ez gara